

"KRISTIÑAUAUEN ORDUA"

Ontzurarte beti uste izan da, apostoladua fraille eta abadien edo sotanadunen kontua edo zeregiña dala. Aaztuta gengozan, bear bada, Konfirmaziñoko sakramentuaren indar eta graziatzaz; aaztuta sakramento aundi onek danok apostolu biurtzen gaitualatzaz, eta bakar-bakarrik orrextarako dalatzaz. Eta olan izan ez bada be, egiaren orduan, bardin izan da: sakristau edo erdi buru bako "beataren" bat izan ezik, etzan ikusten gure artean patxadazko kristiñau apostolu bat. Edo ondo urri beintzat.

Gaur, zorionez, gauzak asko aldatu dira. Pozik ipintekoa da gaurko kristiñau gaztediaren indarra eta kemena. Orain denpora gitxi dula esan eban eskritore batek: gure gizaldiko gauzarik aundiena eta ederrera kristiñau guztiak Eleiz-apostoladuan sartzea izan dala. Egia esan, ez da au gauza barria izatez, baña bai gaurko eran eta indarragaz.

Ondo pozik ikusi eban au Pio XII'ak: "Kristiñauen ordua da", esaten eban berak. Eta bere gogo eta usteak betetzen doaz. Inoiz ez dau Eleizeak gaurko beste jente erabilli bere apostoladuan. Era guztiko jentea ganera: aberatsak eta pobreak, biargiñak eta ikasleak, periodistak eta jakitunak, gizonak eta andrak. Danak apos-

ANAITASUNA

SUPLEMENTO DE LA HOJA «ANAITASUNA» DE GUIPUZCOA

VIII URTEA - N.º 81

AGOZTUA (8) 1961

DEPOSITO LEGAL SS. 1092-1959

tolu eta danak Eleizearen menpean eta bere aginduak jarraituz.

Eta au gauza aundia ez danik ezin esan. Gauza onak eta aundiak euren frutuetatik ezagutzen eidira, eta ikustea baño ez dago: eskritoreak Graham Greene, Julien Green, Mauriac eta abar. Jakitunak Maritain, Bloy. Artistak Gary Cooper, Alec Guinness.

Jakina da gaur leko askotan sotamarik ezin dabela ikusi. Aimbateri enpagua edo ez dakit nik zer emoten deuten. Beste aibestek amorrus eta begi txarrez begiraten deustie eliz-jantziari. Fabrika edo lan-tegi askotan orixe gertatzen da. Ori dala ta apostolu barriak eukeratu bear izan dauz Eleizeak. Intxentzu eta sakristi usainik bako apostoluak, praka eta gonadunak, esko kallotu eta arpegi baltzekoak; erritik artutako apostoluak, erriaren arimea da roenak, ara or: JOC, JIC, TOF, AC, eta ez dakit zenbat geiago.

Poza emoten dau au ikusteak. Etxeko semeak asi yakoz Eleizeari, jantzi dabez praka luzeak, agertu jakue bibotea eta asi dira etzeko biarrean, euren kristiñau konzientziak emon dau beren zartadea eta ara or gure kristiñauak alde guztietan sartuta: plazaetan, tabernetan, fabriketan, unibersidadeetan, periodikuetan, zineetan, deportean.



EZ OLGEU GERO EZKONTZEAGAZ

Askok uste ez izan arren, preparaziño aundia ta luzea bear dabe eskontzako sakramenturutz zuzenduten diran gazteak. Naiz mutilla izan naiz neskatillea, bardin: ezkontzara doiazan danak artu bear dabe preparaziño osoa ta sakona; baiña esan leike neskatilleak samurragoa ta sendoagoa euki bear dabela. Kontuz ba, gazteak, zeuon amesetakaz...

Ezkontzako sakramentua Jesukristok ez eban sortu baten zoriona lortuteko bakarrik, ezpabe andra-gizon bien arteko bakea ta zoriona gogortzeko baiño. Bake ta zorion au iñok ez dau topauko iñun, emazte biak ez badakie ezkontzan barruan bakotxa beren "kometidoa" ziur eta utzik barik betetzen; neskeak emazte ta ama ona izaten jakinaz, eta mutillak beren egin-beararak ondo ikasiaz. Bakotxaren alde ziet beteten badabe, dana joango da ondo.



lenengo orrltik dator

Mundua salbatuko bada onexek salbatuko dabe eta ez bestek. Komunismoa, ateismoa eta paganismoa zapaldu bear badira onexek egingo dabe. Arerioagaz bizi dira eta ondo esagutzen dabe eta badakie mundiko jo.

Ezkondu bearrean dagozan neskek lenengo-lenengotik artu bear dabe gogoan ezkonbizitza ez dala iñoiz be ibillialdi ta jaialdi gozo bat, ezpabe sarritan ernegeu eragingo deutson lagun bategaz egin bear daben joan-etorrera luze ta gatz bat baiño. Eta benetan jakituri onek ameseta utsa ko ebakiten dauz beingoan.

Ezkontzean gure zoriona aurkitu gura badogu, bakotxak beren "kometidoa" beti beteteko amets sakon bat irakin bear da bien biotzean. Ezkontzea bete betian egin bear dan ezkeintz zorrotza da; ez da atsenden pozgarri bat bakarrik.

Ia-ia beti jazoten dana da lenengotaz biak benetan eta egitan maitatzea. Lenengo ezagukerak eta ezkondu aurreko ibilkerak izatez eztiñsuak, gozoak eta alkarganatuñak izatez biak beti. Poz bizi ta ezibako au aurretik dabela errez konpontzen dira ta bien artean utsik be ez dabe aurkitzen. Baiña onek gauzok arin otzituten dira geyentan; alkarregaz biziten asikeran erriyeta ta disgusto aundiak eukiten ditue barruan: alkar maite eziñak, eta iñoiz urrunetik be bururatu ez eitekioezan illun-ikaragarriak. Nork siñistuko ete eban ori jazo bear zanik! Baiña ez aztu: txar-aldi onek ezin daikeguz kendu ezelan-be. Nobiazgo luzea ta ondo eroana aurretik izan da be, ez da erreza bata bestearen akatsak eta onbideak ezagutzea. Ganera ez dira iñoiz famili batekoak emazteak-eta...

Baiña alan de gütiz be, zuek, neskatillok, zer eskatuten deutsuen ezkontzako "ezkeintza" orrek ondo jakin bazendue, asko motelduko ta gozatuko zeunkeez bien arteko okerrok.

Ez aaztu iñoiz, neskatillea, besteari emoten deutzazun "bai" orrek arantza asko ereingo dabezela zure bizitza guztian zear eta sarritan odolduko dala zure biotza Olantxerik iruasiko dozu zure gizonaren biotza ta erosiko dozuz zure semeak...

Maitetasunaren benetasuna ez da igerten gogotasunean bakarrik, gogor-aldietan batez be. Orregaitik ba, zenbat mustur ausika dabizen ezkontz-bizi konponduko gendukez, andra gazteak ixilean sufritzen balezkie...

Zuk, gaztea, negar ta renuntzi gogor asko kostako yatzula-ta, emoten badozu zure "baia" ezkontzako sakramentuan, salbatuta zagoz: zure ezkontz-bizia zoriontsua izango da. Begitu ondo "bai" orrek eskatuten daben miñ zorrotzari, biotz ikara asko aurreratuko dozuez-ta. Astertu zuen ezkeintza ta orretaraxe topauko dozue bera ta bestearen zoriona. Pentzeu ondo, ezkontzea ez da olgetako gauzea-ta!

Anai Yon Zabalgo

Eleizearen sanetatik odol barri bat dago, beroa eta sendoa. Eta odol onen suak berotuko dau gaurko mundua, otza da baiña. Olan uste dau beintzat Eleizeak.

Antonio Zubizarreta

¿Zer irakurten dabe gaurko

Españako ume ta gazteak?

Bizkaiko guraso maiteak; gaur zeuentzako idazten noa. Zeozer esan gura deusuet zeuen semeen edukaziñoaren gaiñean. Astiro-astiro irakurri mesedez.

Seme-alaben edukaziñoa beti izan da problema gatxa baiña bear bearrekoa. Edukaziñoak beti izan dauz bere aparteko unedetuak eta gatxtasunak. Gaixtasun oneek ez dira beti bardiñak izan. Gaurko ezitasun edo edukaziñoak ba'ditu bereak, bai barru aldetik, bai kampo aldetik. Nire ustez, gaurko edukaziñoaren estropezurik aundienetarikoa auxe da: "Irakurpenaren nabarmenkeria". Gaurko umeak, gaurko gazteak asko, larregi irakurten dabela esango neuskizue (neutsue), batez be era "larregitakoak". Amaitkatxu tebeo ta nobela sartzen dira gaurko egunean! Batean. "Jaimitoren eginkizun ikusgarriak direala"; bestean, "Pepito ta Pepitaren amodioak direala". Gaur, Jaungoikoari eskerrak, umeak berbetan ondo ikasi orduko ikasten dabe irakurten; au eztago txarto; baiña "Aitearen..." ikasi baiño len tebeoak irakurten ikastea eztago aiñ ondo, nabarmenkeriaren sustrai bai-da.

Baiña ba'ditu edukaziñoak, irakurten ikasi orduko aurkitu bear diran momentu edo unede inportanteak. Ume ta gazteen ezitasuna dala ta ezjala, asko esan eta asko idatzi da gure gizartean. Umeak, batez be bere lelengo urteetan, "guraso" asko ditu: aragizko gurasoak, eskolako gurasoak, dotriñako gurasoak, politikako gurasoak, t.a. Guztiekandik artzen dau umeak bere edukaziñoa. Edukaziño onek ogei edo ogeita bost urtekin burua jaso arren, aurtzarroan eta gaztarroan dauko sustraia. Ume demporak importantzi aundia dauko. Umeak ikusi al dabezan guztiakaz jabetu gura dau; bere biotz biguñean ikusten daben guztia geldituten da josita, ta askotan betirako. Kontuz ibilli, bada, umeen aurrean! Umeak, bestiekin alkartuten danean, batez be bere gurasoekin, idoroten dau egitasunaren edo errealidadearen iturria; orduntxe eregiten dauz bere begitxuak.

Baiña begi-eregite onekin bat batean umeagan beste zerbait be badator gorantz: "Azkatasun gogo". Azkatasun-gogo au indartsu dator gaurko umeen biotzean. Gaurko umeak arin azkatu gura dabe gurasoen praka-gonatatik, sukaldetik. Baiña

ez alde egin bakarrik, alde egin eta beste "mundutxu barri" bat aurkitu. Zeiñ mundutxu da au? Batzuentzat bere lagunen artean aurkituten daben mundutxua; besteentzat ziñeko mundutxua; besteentzat, irakurpenaren mundutxua. Umeak mundu barri au idoroten daben momentuan, gurasoak zaiñ egon bear dabe, ta gañera begi biekin! Ezaigun egundo pentsa umeak "salto" aundiekaz gizondu bear dabenik, ez; umeak saltu asko, baiña saltu txikiekin gizondu bear du. Ganorabako saltuak alperrik galduta isten dau askotan gaztea. Ta zeñ da ganorabako saltu onen sustraia? Askotan beintzat, "Irakurpenaren nabarmenkeria".

UME TA GAZTEEN IRAKURPENA:

Irakurpen problema onek geldi egon-ezin aundi bat sortu dau naziño askotan. Ta gure naziñoan? Irakurpenak ba'dauko bide edo jo-mugarrik? Edade bakoitzarentzat ba'dago apropozko irakurpen gairik? Etxeetan, eskolatan, eta beste toki askotan, umeentzako ba'dago aparteko liburu, aldizkari, orririk? Edade bakoitzak eskatu oi dabezan libururik, t. a. erosten da? Eztago erantzunik; baiña, ikuskizuna lotsagarria, negargarria da benetan! Ta, errua nork dauko? Umeen eta gaztediaren zuzendariak. Edade guztietako irakur-gaiak nasta-purrustan dabilz; ta onelan nora jo edo zer egin?...

NEGARGARRIA, IRAKURLE, NEGARGARRIA!

Umeen ikaste-etxeetan, geicnetan beintzat, ez dago formalidaderik: nai bederatzi, nai emeretzi urte euki, bardin da, danentzako era bateko liburuak, aldizkariak. Jaungoikoari eskerrak, ba' dira edade bakoitzari egoki yatorkozan irakur-gaiak ipinten dabezan ikaste-etxeak; baiña, gitxi.

Bardin gertatzen da nobela kontuetan be: "Odola, indarra, malsurkeria, gorrotoa, aragieria, amodio zikiñak...", orra or gaurko gazteak irakurten dabezan gaiak. Ta au gitxi baltz legez, "los héroes, los buenos" deritzayon gizonak, ezkerrekoa edo eskumakoa il edo zauritu

Aita Imanol-ek Irlanda-tik

EUROPA-KO KRISTIÑAU ESTUDIAN-

TEEN ATLETISMO JOKUAK

Garagarrillaren (julioren) 15-ean asi dira Irlanda-n Europa-ko Kristiñau Ikasleen Atletismo Jokuak. Zortzi naziñoko estudianteak batu dira: Espaiña, Austria, Belgika, Frantzia, Ingalterra, Libano, Monaco ta Irlanda-koak. Urtean urtean batzen dira Europa-ko naziñoren baten. Igaz Espaiña elegidu eben, eta Donostia-n egin zituen euren atletismo jokuak.

Aurten, Irlanda-n, leku bitan jokatu dabe: Gormanston-en eta Drogheda-n. Dublin-etik urre dagoz toki biok. Espaiñolak polito jardun dabe, eta ez dira izan atzerengoak. Sarri egon naiz eurokaz, sarri verba egin dogu alkarregaz. Urre urretik ikusi dodaz euren entrenamentuak, eta —egia esateko— arrotu egin naiz euren joku ederragaz.

Gormanston, aproposko leku da olako jokuetarako. Nekez topa leiteke Irlanda-n leku obeagorik: landu ederrak, jolas toki modernuak, jokalarientzako deskantsu leku miragarria. Zelaien erdian gaztelu elegante bat dago, eta beronen alboan ikastetxe eder bat. Ederra izan bear dau, Europa-ko onenetariko dala bertoko errevisa baten irakurri dot-eta.

Eta nok esango leuke! Kolegio ori Fraiñle Frantziskanoak daukoe, eta bertontxe nago ni ingles demoniñoa ikasten.

INGLESA ETA NEU

Gatxa da gero inglesa! Ez dakit nik zegaitik, baiña... berrogeitik gorakoa naizalako-edo, nekez ulertzen deutset verba gra-



no bat frailleeri, euren artean parra parra itz egiten dagozanean. Astiro verba egiten badeuste, tira! polito kompontzen naiz eurakaz, eta egunean baiño egunean obelo entenietan deutset esan gura deustena. Oso onak dira neugaz; eta ez dira eguno molestetan; geldiroago verba egiteko milla bitar egunean nire agotik en:zunarren.

Bein, deskubrimentu barragarri bat egin neban, fraille bategaz Bermeo-ko arraintza-leen bizimoduaren gainean verba egiten nengoala. Esan neutsan zelan urtean urtean frai Alberto ta biok joaten garean Afrika-ra eurakaz arraintzan. Asi nintza kon-erpliketan zelan atrapatat dan aluna. Politu ulertuten eustan berak. Esan neutsan zer egiten dan txiperragaz, zer txis tégaz, zer kaiñabereugaz. Baiña amura eldu nintzanean, ez nekian zelan esan inglesez karnadea. Galdetu neutsan ba berari. Ta ba-dakizue ze izen eman eustan? Beit. Aolantxe pronuntziatan dabe eurak, bait eskribiduarren. Entzun ondo gero, Ondarri ta Donibane-ko arraintzaleak. Beit: aolantxe deituten deutsoe. Inglesak amurren puntan ipinten dan janariari. Zuen beita edo peita ez da Euskalerrian sorturiko itza, eta Inglesakandik artu zenduen urtean verba ori, Lapurdi aintziñako urteetan euren menpean egon zanean. Ba-dakizue oraink eta ez egin barrerik geiago, Bermeotarrak beitarren ordezkarnadea esaten badogu, verba biok —beste askoren antzerk-popotarrak izanarren— bardin bardi euskaldunak dira-ta.

TELEBISIÑO A ETA ABAR

Illuntze guztietan joaten naiz komeniko TV ikusten. Antxe egoten naiz zabe!

zabal, demporea emoten eta bide batez inglesa ikasten. Nik ez dot apenas ikusi Españiako TV, antena torre eder bat Sollube-n egonarren. Nik ez dakit zelakoa dan, eta ezin neikizue komparaziñorik egin. Baiña Londres-koa beintzat, guztiz ederra da; eta asko poztuko nintzake, Madrille-koa beronen antzekoa balitz.

Emen Irlanda-n, ez dago oraindiño telebisionorik. Lastima aundia izan da, lengo illean Dublin-en San Patrizio-ren hondran jai ikusgarriak izan dira-ta. Amabost sekulu igaro dira, San Patrizio, il zanetik ona. Berak kristiñautu eban Irlanda osoa, eta bera da naziñoaren zaindaria. Ori dala-ta, urte guzti onetan ospe aundiagaz dabil-tza zelebretan Irlandesak euren patroia- ren zentenarioa.

Domeka baten, Dublin-eko Misiño Era- kusketea ikusten joan nintzan neu- bere beste fraille bategaz. Ezhibiziño ederra be- netan! Ondo ornidua, ondo presentatua. Arrituta geratu nintzan, Irlandes misiño-

lariak mundu guztian zear egiten daben lan izugarriaren aurrean. Banan banan ikusi nituan Ezhibiziñoko departamentu guztiak. Baiña aparteko interesagaz ikusi neban stand bat: Sierra Leona-koa. Triki- a izanarren, guztiz polita zan. Monja gazte- txu bat egoan bertan. Saludatu neban; eta preguntatxu batzuk eginda gero, neu- bere Bermeo-ko arraintzaleakaz urtean urtean Sierra Leona-ra joaten nintzala esan neu- tsan.

—Bai, Jauna. Ba-dakit —erantzun eustan berak irribarreka—. Eta ondo akordetan naiz Berorregaz, igazleneko Pazko dome- kan Freetown-eko katedralean Berorren mezea entzun neban-da.

Turdituta geartu nintzan, eta gauza bi- gaz ondo konventziduta urten neban an- dik: emakumeak orretarako vista ona dau- koela, eta mundua guztiz txikia dala.

Emengo beste gauza asko pozarren esan- go neuskizue; baiña itxi daigun urrengo- rako. Agur.

3 garren orritik dator

ta txaloe jo. Bost gizon txar il dabezam "gizon ona" ejemplotzat artu oi da, ta gero... aupa! Drabo! esan oraindiño! Bitartean zer? Umeak, gazteak agoa zabalik, begi aundiak jaso ezinda. Oraindiño ezta naiko: ikaste-etxe askotan, dibu- jo denporan, emakumeen irudi zikiña atarateko ez dago lotsarik; ez dakie, kontixu, umeen ta gazteen irudimena denpora baiño lenago biztu- tea debekauta dagoanik.

Irakurpenaren problematuak estudio zakona bear dau. Estudio zakon edo aldozun ori zeuk egin bear dozu, guraso maitea, seme-alabak on- do asi ta eziteko.

Estudio au egiteko eztakit nire laguntasunik bear dozuen ala ez, baiña, dana dala, gaurko irakurpenaren buruz gauzatxu bat esango deu- tsuet:


Gaurko ikaste-etxetako liburuak eta nobelak joera bi daukez; bata liburu-egillen artegatasun larregitik dator. Artegatasun au txalagarria da, baiña ezta larregi txalotu bear, pekatutxu bat dau-ta. Gizona ta gizonaren eginkizunak gora ja-

sotearren, goregi jasoten dabez; ta, gero zer? Li- buru onek irakurten dabezam mutiko edo nes- katoa egitasunetik edo errealidadetik kanpoan bi- zi da; ta au ezta ona; gurc mutiko edo neska- toak liburu onek irakurri ondoren, ezin dauz garaitu eguneroko bizitzaren estrepozuak; gazte ori zeruetan biziko litzake, ta au ezta kobeni den- pora baiño lenago...

Beste estrepoza txarragoa da: gaurko liburu askok indarra, odola, aragikeria ta beste onen antzeko deabrukeriak txalotuten dabez. Indarra edo maltzurkeria daukan gizon edo emakumea da onena. Indar au, maltzurkeri au askotan ezta idoroten aiiñ errez; askotan lelengo aldiz irakurri ta ezta ezertxorik gertatzen; baiña, gero... Zen- bat, bidar entzuten da: "Gure semeari ez dakit zer gertatu yakon... ¡Len mantso mantsua zan ta oraiñ... deabrua bera baiño be gaiztoagoa da! Zer gertatu dan? Askotan lagunak izango dira; baiña beste askotan liburuen baten irakurpena.

Ikusi ta ikasi noraiñoko importantzia daukon irakurpenak; askotan, zuk, guraso maite orrek, pentsaten dozun baiño geiago!...

Idoyaga'tar Xabier



AU BE SOLDADUA DA: Rusoak eta amerikanoak Elba erreka ertzean tope egin ebenian rusitar jeneralaren kontura upialako banket bat ospatu eben, merezi ebela ta. Nai ala jan ondoren ballet arrigarri bat izan eben.

—“Auxe gauza ederra eta zoragarria”, esan eban jeneral amerikanoak.

—“Ba... rusitar ejerzitoko neskatillak baño ez dira”, erantzun eutsan rusoak.

Andik urrengo egunean amerikanoak be beste banket bat atondu eben, eta rusoak ebezen konbidau. Ago zabalik egozan rusoak ango biolinista bateri entzutean.

—“Auxe bai dala auxe ederra, beste mundukoa dirudi benetan be”, bota eban rusoak.

—“Ba ez da beste mundukoa be —erantzun eutsan amerikanoak— geure soldadu bat baño ez da”.

Paristik eroan bear izan eben amerikanoak biolinista a, eta kakiz jantzi ondoren rusoen aurrera eroan. Soldadua barik Jascha Heifetz aundia zan.

* * *

GAUZARIK MIRARIGARRIENA: Tales, filosofoa, Greziako zazpi jakitumetario zan. Bein itandu eutsen:

“Gertatutakoak”

—“Tales, zer da mundu onetako gauzarik mirarigarriena, edo gitxienetan aurtuzten dana”?

—“Naziñoko agintari gaizto bat zuztegin da”, erantzun eban.

* * *

BEIN BADA BE...: Jenokrates, Greziako filosofo eta Platonen jarraitzaile aundia aduladore edo guzurrez goratzen eban ezin eban iruntsi. Bein batek danetan erantzen eutsan errazoia. Jenokrates amonak birikak botatzen asi zan eta esan eutsan

—“Eidak bein bada be kontra, gizonak jakin daigun bi gariala”.

* * *

PIZTIRIK OKERRENA: Itandu eutsan bein Teokritori, zeintzuk ziran piztirik okerrenak eta gaiztoenak:

—“Basoan... leoiak; errietan... mingaizteko gizonak”.

* * *

LENENGOA, EZ BIGARRENA:

—“Berba egiteko makinea lenengoz da maiz dozun zu zariala diñoe, egia da” esan eutsen bein Edison jakitunari.

—“Ez, ez, ni ez naz lenengoa, ni bigarrena naz; lenengoa Jaungoikoa da”.

ILLOBIAN: Richelieu, Luis XIII ministro aundiaren illobian auxe ipini eben:

—“Ementxe dago lo betikoan Richelieu Kardenal aundia, txar eta on asko egin-dako gizona, on guztia txarto egin eban; eta txar guztia ezin obeto”.

* * *

GURDI ZAARRA: Alfonso Rodriguez Santuak auxe esaten ei eutsan berba la-regiko gizonari:

—“Theoria sine praxi, currus sine axi”, Zu ta gurdi zaar bat bardin, zarata asko eta beti geldi.

EGI GALANTA: Epaminondas, Tebas erriko salbatzalle eta jeneral aundia, txi-kitan kaletako barrendero edo garbitzallea izan zan. Bere erria askatu ondoren jai aundiak ospetu ebezen bere alde tebastarrak. Baña an be enbidi askoko jentea egon kontixu, gizon eta andre pilloa ikusi eban beragaitik mar-mar eta burletan. Itandu eutzen jeneralak:

—“Zergaitik zagozee barreka”?

—“Ondo dakigulako zu barrendero bat baño ez zariala”.

—“Ondo dago —erantzun eutsen—, baña jakizue: ez dirala opizioak gizona aundi-tzen edo txikitzen dabenak, gizonak opiozioak baño”.

Paris'tik A. Antonio Zubizarreta'ri

Agur bero batekin,

Agurri del zure lantxua euskeratzaz. Bi erako eskutitzak artu dituzi: euskera errexaren aldekuak eta kontrakuak.

Ara emen nere eskutitza euskera erre-raren alde. Jarrai zalantzarik gabe, bildur rabe, euskera errexakin. Oso ondo. Ori da bide bakarra zuen errebista irakurtzia nahi badezule.

Nik irakurtzen del astetik bukaeraino, euskera errexa dalako, goxua dalako. **MIN-TZATZEN DEGUN EUSKERA DALAKO.**

Eta oartua naiz, euskera garbizaliak dira, reienian, edo familian edo adixkide tartian euskeraz mintzatzeko oituratik ez dutenak...

Jarrai, zalantzarik gabe, jarrai euskera errexakin. Ori da gaurko eguneko, bide

egokia, bide bakarra euskeraz idazteko eta bide batez euskeraren alde lan egiteko.

* * *

Beste oartxo bat: Utzi alde batera gizonen arteko arazuak... gizonak erabaki ditzaten.


Saiatu kristau onak egiten eta... egin daukuak gordetzen. Ene usteko ori da, eta ori bakarra, zuen egin bearra.

Ni oartu naiz gizonen arteko arazoetan ez naizela batzutan zuen iritziakin konforme...

Zergatik burrukatu bear degu kristauak, gizonen arteko arazoetan...?

Batu gaitezen gure kristautasunian, gorde dezagun elkarrekin gure FEDIA eta ez degu asarrerik izango.

Zure mempeko gelditzen dan



1. NEW YORK.

New YORK'ko Arzobispo jaunak, Spellman Kardenal ospetsuak, 5.000 dolar emon dauz Fidel Castro'k eskatuten dabezan traktoreak erosteko. Dakigunez traktore orreak Castro'k lotuta daukozan gizonak gaizkatuteko dira. Orixe eskatu dau «bizardunak» bere gizon lotuen orde, eta, antza, emon egingo deutsoez traktoreak. Zer dala ta orrelako sal-erostea? Traktoreak noiztik balio dabe gizonen beste? Inoiztik bere ez, baiña... gogoratu daigun Jesukristo'k esandakoa: «matralla baten emoten badetsue ukubilkazoa, jarri eiozue beste matralla»... Bestela, Castro...!

2. EGO-AMERIKA.

Buru-auste ga'anta dogu aspaldion Ego-Amerika. Sutan irikiten dagola esan leike! Bai, danok ikusten dogu Ego-Amerikako sua, danok ezagutu ten doguz ango jazoak, baiña, nire ustez gaurko gizonok ezin dogu esan sigur zein dan gorabera orreen zio sakona ta egiazkoa. Nik uste dot emetik amar edo ogei urtera ikusiko dozuza'a gaur gaur baiño argiago. Gaur orixe esan daikegu: Ego-Amerika sutan irikiten dagola! —Lenengo Cuba'n izan zan. Ardi-narruzko gizonak etorri jakuzan eta beingo baten jarri deuskue komunismoa uga te aretan. — Oraintxe, Bolivia'n izan da. Komunistak nazioagaz egin gura izan ei dabe baiña ezer lortu barik. —Ortxe dabil gero gure Stevenson jauna, Kennedy'ren ordezkoa, Ego-Amerikako nazio guztieri laguntza es-

keintzen. Eta zer? Iya arrika artun dala alderdi guztietan, Guatemala'n, Perù Ecuador'en... Lima'n erri-amorroaren eskutatik gorde egin bear izan dabe EE.UU. ez dau oindiño ikasgaia ikasi? Ba, amai bider esanda daukotsue: erriak ez dabe gaur laguntzarik, indarra gura dabe; dabe gura gudea, azkatasuna gura dabe, zioaren eta norbearen azkatasuna, Jaun koaren legea beteteko bear dan azkatasuna eta indarra.

3. CANNES.

Ba-dakizue Frantziko erri orretan zelatzen izaten dan urtero-urtero zine-sariketa baten zine onena, direktoren onena, artista onena (aurtengoak Antonio Perkins eta Sofia Loren dira)... eta abar. Oi denez, zunkeriak irabazten dauz sari goienak; baiña aurtan, epai-maiko erabakiak beste batzune bat euki dau: pelikula gaizto baten saritu dau, «Madre Juana de los Angeles» poloniakoa. Varsovia'ko kardenalak, Wyzanski'k, pelikula orregan esan dau «Elean zaren arpegira botariko txistua dala». Bata tan Polonia'n ez eban euki orregaitik ikuzalerik.

4. EE.UU.'ko KATOLIKOAK.

EE.UU. ko kato ikoan azkenengo numerotako onenek dira: 42.104.900. Orain amar 28.634.878 ziran. Amar urte onetan 13.470.022 gciagotu dira, esate baterabate euneko berrogeta zazpi (47%).

PELLO-MARI

